



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko maiatzaren 30a

50. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 24. artikulua aldatzen duena (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioi goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

—Foru Lege proposamena, agur zibilak arautzen dituen. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan toki entitateek hezkuntzaren arloan duten eginkizunari eta “Hiri Hezitzaileak” bezalako programei buruz. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da indargabe dezan Nafarroako Errege Bardearen zati baten gainean Defentsa Ministerioak eginiko deklarazioa, defentsarako lehentasunezko intereseko eremu izatearena. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren ekintzak abian jar ditzan Nafarroako Errege Bardearen baliabideen antolamenduari buruzko planaren betetzea eskatzeko. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da azterlanak egin ditzan laborategi zibil gaitu eta independenteetan, baztertzeko Nafarroako Errege Bardeako natur parkearen barrenean dagoen tiro poligonoan uranio pobretua edo inguruan bizi diren herritarrentzat kaltegarriak diren bestelako elementuak erabiltzen direnik. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan herritarren borondatea, Bardeako tiro poligonoa desegitearen aldekoa, defendatzeko, hala adierazi baitzen Nafarroako Parlamentuaren 2008ko martxoaren 13ko erabakiaren bidez. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (10. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren, eskola liburutegien eta irakasleei laguntzeko zentron artean sinaturiko hitzarmenei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (11. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak jarduera planik ba ote duen, dirulaguntzen eta pizgarrien bidez eraikin eta etxebizitza zaharren eraginkortasun energetikoa sustatzeko, M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak egina (12. or.).
- Galdera, helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako harrera-baliabideei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik T bideetako teleordainketa eskusiboa ez dabilen gaez, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Vida Nueva elkartearen zentroko egoiliarrei, dirulaguntzei, ikuskapenei eta jarduera lizentziari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Oinarritzko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzearen gaineko Foru Legeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lan-taldea, ikastetxeak eraiki eta eraberritzerakoan zer alderdi hartu beharko liratekeen kontuan aztertzea (15. or.).
- Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia. Izendapen proposamena (16. or.).

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

**Foru Lege proiektua, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 24. artikulua aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2008ko maiatzaren 19an hartutako erabakiaren bidez, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 24. artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.-** 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 24. artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektuaren izapidatzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**2.-** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.-** Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Lege proiektua, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 24. artikulua aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENEA**

Urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen bidez,

2008. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak onetsi ziren.

Lege horren gastuen egoeran 431000-43100-4455-322300 aurrekontuko kontusaila dago, "NUPen finantzaketa: Iruñeko eta Tuterako campusak" izenekoa, 57.191.082 euroko kreditua duena.

Bestalde, foru lege horren 24. artikuluan hainbat epigrafetan banatzen da kontusail horretako diru-kopurua, baina 56.591.082 euro besterik ez du banatzen; izan ere, ez da aintzat hartzen Parlamentuan sartutako zuzenketa baten ondorioz dirukopuru hori 600.000 euroan igo zela. Horrenbestez, disfuntzio bat ageri da azkenean onetsitako kredituaren eta epigrafeetan egiten den banaketaren artean. Horregatik, beharrezkoa da agindu horren edukia aldatzea, zuzenketa onetsi ondoren dagoen kredituari egokitzeko.

Artikulu bakarra. 2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 24. artikuluko a) eta b) letrak aldatzea.

2008ko urtarrilaren 27tik aurrerako ondorioekin 2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 24. artikuluko a) eta b) letrak aldatzen dira. Honatx idazketa berria:

"a) Irakaskuntzaren eta ikerketaren finantzaketarako transferentzia arruntak, 50.436.193 euro, oro har hiru hilabeteko aurrerapenarekin eginen direnak.

b) Irakasleen ordainsari osagarrietarako transferentzia arruntak, gehienez ere 2.653.832 eurokoak, bi epetan eginen direnak, Unibertsitateko Kudeatzaileak justifikatu ondoren. Gastua gauzatu dela frogatzen duen dokumentazioa erantsi beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Kontu-hartzaileak ontzat emana"

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa**

**ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legeko zioen azalpenean jasotzen denez, sektore publikoaren funtzionamendu zorrotz eta objektiboa bermatu beharra dago.

Praktikan, lege horren aplikazioak erakutsi du goi kargu eta gobernuko kide gehienak ordainsariak jasotzen ari direla administrazio kontseiluetara joateagatik; horrek ez dirudi bateragarria denik independentzia instituzionalari eustearekin; are gehiago, kontuan izanda sozietate horietako batzuek ez dutela foru erakundeen gehieneko partaidetza.

Bestalde, zenbait gertakariren ondorioz, irudipena dugu administrazio kontseilu batzuetan egiten diren izendapenak ez direla egiten pertsona horien gaitasunengatik edo administrazioak interesa duelako beren ezagupenetan eta lanean, baizik eta izendapen horiek aipatutako goi karguen dirusarrerak handitzeko bidea direla.

Gure ustez, Nafarroako Gobernuko kideek eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioiko goi karguek ordainsari bakarra jaso behar dute, karguari dagozkion eginkizun guztien ordain izanena; kargua dela-eta administrazio kontseilu bateko partaide izan eta hara joateagatik sariak jasotzea ekidin egin behar da. Dirusarrera horiek zuzenean pasa beharko lukete diru publikoen kutzara. Horrela, kudeaketa publikoaren ondorioz-

ko dirusarrerak eta gastuak gardenagoak izatea lortuko da.

Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari goi karguen bateraezintasunei buruzko legedian, ordea, beste legedia batzuetan ez bezala, oraindik ere ez dago bateraezintasunik ezarrita, bete izan den karguaren eskumenekin zuzenean lotutako jarduerari pribatuetan parte hartzeko, kargu-uztearen ondorioz ordainsariak edo kalte-ordainak jasotzeko eskubidea egotearen kasuetan.

Azkenik, gai honetan gure inguruko administrazio gehienek duten araudiarekin parekatuko ginateke era horretan.

**1. artikulua.** Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3 bis.1 artikulua aldatzea.

3 bis.1 artikulua. Goi karguei kargua utzi ondoren aplikatzekoak zaizkien araubidea eta sariak.

1. Kargua utzi eta ondoko bi urteetan goi karguek ezin izanen dute jarduerari pribatuetan aritu, karguan zeudenean haiekin zerikusia duten espedienteetan ebazpenik eman bazuten, ezta laguntza teknikorako, zerbitzuko edo antzeko kontraturik egin ere administrazio publikoekin.

Kargua uztearen ondorioz ordainsariak, kalte-ordainak nahiz bestelako edozein konpentsazio-prestazio jasotzen dituzten pertsonak, berriz, ezin izanen dute parte hartu haiek izan duten karguaren eskumenekin zuzenean lotutako jarduerari pribatuetan. Betekizun hori ez da desagertuko prestazio ekonomikoari uko eginda ere.

Horren ondorioetarako, harreman zuzena dagoela ulertuko da baldin eta egitatezko ondoko kasuetako bat ematen bada:

a) Goi karguek, haiek proposatuta haien nagusiek edo haien menpeko organoetako titularrek, delegazioz nahiz ordezkapenez, aipatu enpresa edo sozietate horiei buruzko ebazpenak eman badituzte.

b) Kide anitzeko organoen bilkuretan, zeinetan entitate horiei buruzko erabaki edo ebazpenik hartu den, parte hartu badute.

Kargu publikoak bete aurretik lanbide-jarduerari enpresa pribatuetan izan duten eta enpresa pribatu horretara itzuli nahi duten goi karguek, foru lege honek araututakoek, ez dute arestiko lerroaldean ezarritako bateraezintasunik izan, baldin eta betetzera doazen jarduerari ez badago zuzenean lotuta izandako kargu publikoaren eginkizunekin eta ezin badute hari eragin dien erabakirik hartu.

Foru lege honen aplikazio-esparruko goi karguaren batean aritu diren pertsonak komunikazio bat, arituko diren jarduerari buruzkoa, igorri beharko diote Foru Lege honetan ezarritako jarduerari eta interesen Erregistroari, aurreko lerroaldean adierazitako epearen barrenean. Erregelamendu bidez ezarriko dira komunikazio horren norainokoa eta edukia.

**2. artikulua.** Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 5. artikulua aldatzea.

5. artikulua. Kargu publikoen sari ekonomiko bateragarriak.

1. Kargu publiko gisa goi karguan aritzearekin bateragarri diren jarduerak galarazi gabe, ez da karguaren lansariak aparte beste diru-saririk jasoko, honako hauek salbu:

a) Egin behar dituen bidaia, egonaldi eta leku-aldatzeen gastuen kalte-ordaina, indarra duen araudiari jarraituz.

b) Zein administrazio publikotatik datorren, haren legeriak onartzen dizkion ordainsari bateragarriak, goi karguak eszedentzia berezian edo zerbitzu berezietan dauden funtzionarioak direnean.

2. Edozein kontzepturen bidez zenbatekoak sortzen badira, jaso behar ez direnak, aurreko zenbakian adierazitakoari jarraituz, dagokien aurrekontu-kontuan sartuko ditu zuzenean ordaintzen dituen erakundeak, eta hori ezinezkoa bada, hartzaileak berak, jaso eta hamabost eguneko epean.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru Lege hau 2009ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

## Foru Lege proposamena, agur zibilak arautzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak agur zibilak arautzen dituen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

1. Agur zibilak arautzen dituen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Agur zibilak arautzen dituen Foru Lege proposamena

#### ZIOEN AZALPENEA

Gizarteak oro har dakienez, Estatuak, akonfessionaltasunaz gain, gizabanakoen nahiz erkidegoen ideologia-, erlijio eta kultu-askatasuna bermatu behar ditu, muga bakarra izaki, haien agerpenetan legeak babesten duen ordena publikoa gordetzeko beharrezkoa dena.

Ezaguna da, orobat, gure gizartearen ideologia-, erlijio- nahiz kultura-aniztasuna, gurea gizarte anitza baita, etengabe aldatzen ari dena ohitura eta gizarte-ekintzen adierazpenei dagokienez.

Hiletak edo heriotza-omenaldi zibilak egiten dira, hain zuzen ere, gizarteak premia duelako hautu hori egin duten herritarrei zeremonia duin eta pertsonal bat eskaintzeko; hildakoak nahiz haren senideek edo horiek denek bizitza nola ulerzen duten, halakoa.

Adituen arabera, gaur egun % 10 eta 20 bitartekoa da hurkoak gisa horretan agurtu nahi dituztenen kopurua, eta hurrengo urteetan % 40ra iritsiko omen da kopuru hori.

Gure gizartean elkarrekin bizi diren erlijioek badituzte nork bere hildakoak agurtzeko ospakizun liturgikoetarako tokiak edo tenpluak, baina gure hiriek eta udalek ez dituzte atondu toki egokiak, egin ahal izan daitezen ekitaldi zibilak, gure herritarrek gero eta gehiago eskatzen duten beharizan sozial bati erantzuteko ezinbestekoak direnak.

Foru lege honek xede du, hortaz, udal-lokalen sorrera eta ekitaldi zibilak baimendu eta egiteko prozedura arautzea; hartara, senideek, lagunek nahiz gizarte zibila osatzen duten erakundeek eta entitateek omenaldia edo agurra egin ahalko diete euren hildakoei, erkidegoari eginiko ekarpenak edo haien balio etiko edo/eta gizatiarrak aintzates-tearren.

### I. KAPITULUA Udal lokalak

#### 1. artikulua.

a) 3.000 biztanletik gorako udalek udalaren titulartasuneko lokal bat sortuko dute, hildakoak agurtu eta omentzeko ekitaldi zibilak egin ahal izan daitezen.

b) Arestiko letran aipatzen diren erabileretarako behar bezala egokituta egonen dira lokalak.

c) Dagokion tasa ordaintzea exijituko da lokalak erabiltzeagatik.

### II. KAPITULUA Baimena emateko prozedura

#### 2. artikulua.

Udalen auto-antolaketa eskumenak ezertan galarazi gabe, hurrengo artikuluetan xedatuari jarraikiz arautuko da hiletak edo heriotza-omenaldi zibilak egiteko lokalak baimena eta erabilera.

#### 3. artikulua.

Senideak edo eskabidea aurkezten duen pertsonak udalaren erregistrora igorri beharreko dokumentazioa jaso eta gero, alkateak edo zinegotziak edo/eta hark eskuordetutako funtzionarioak baimena eman ahalko dute hiletetarako edo omenaldi zibiletarako erreserbatutako lokalak erabiltzeko.

#### 4. artikulua.

Hiletak edo omenaldi zibilak egiteko eskabideak alkateari zuzenduko zaizkio, eta udaletxean aurkeztuko dira, Administrazio publikoen araubide

juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako edozein modu baliatuta aurkeztu ere.

Hiletak edo omenaldi zibilak egiteko eskabideak inguruabarrek eskatzen duten berehalakotasun-printzipioari jarraikiz izapidetuko dira, eta pertsona eskudunari igorriko zaizkio, hark ebaz dezan.

#### **5. artikulua.**

Eskabideak idatziz aurkeztuko dira, behar bezala sinatuta, alkateari zuzenduko zaizkio eta ondokoak jasoko dituzte:

a) Eskabidearen eguna eta tokia, eta baimena eskatzen duen pertsonaren izena, abizenak eta helbidea.

b) Hildako pertsonaren izen-abizenak.

c) Hileta edo omenaldi zibila egiteko nahiago den eguna eta ordua.

d) Udal lokala erabiltzeagatik tasa ordaindu izanaren ordezkagiria.

e) Ekitaldiaren azalpen laburra eta, kasua bada, erabili nahi den materiala (megafonia eta abar).

#### **6. artikulua.**

Eskabideak ez baldin baditu betetzen aurreko artikuluan ezarritako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio okerra al bait arinen –ekitaldia baino lehen edo horren ondoren– zuzen dezan edo aginduzko agiriak aurkez ditzan.

#### **7. artikulua.**

Hileta edo omenaldi zibilaren eguna eta ordua alkateak, zinegotziak edo/eta hark eskuordetutako funtzionarioak ezarriko du, kudeaketa egitea agindu zaion departamentuak horretarako abiatutako espedientearen ondotik.

Eskatzaileek egunari eta orduari buruz adierazitako lehentasuna errespetatuko da, eta egun eta ordu jakin baterako eskabide bat baino gehiago baldin badago, eskabideak aurkeztu ziren hurrenkera gordeko da. Hurrenkera hori soilik aldatu ahalko da baldin eta ohiz kanpoko beharrian larriko inguruabar objektiboak gertatzen badira. Edozein kasutan, ohiz kanpoko beharrian larri hori behar bezala arrazoitu beharko da, eta bere esku-bidea ukituta ikusi dutenei entzun beharko zaie.

#### **8. artikulua.**

Hiletak edo omenaldi zibilak astelehenetik igandera bitarte eginen dira, eta, horretarako, behar diren udal-baliabideak gaituko dira.

#### **9. artikulua.**

Hiletara edo omenaldi zibilera udal funtzionario bat edo lan-kontratadun bat joanen da, ekitaldia bermatze aldera. Ezin baldin bada halakorik joan, ekitaldia baimentzeko ebazpenean eskatzaileari edo beste pertsona arduradun bati eskuordetu ahalko zaio eginkizun hori.

### **III. KAPITULUA** **Eskabideak eta betebeharrak**

#### **10. artikulua.**

Eskabideak foru lege honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu, ekitaldia baimendu beharko da, ezertan ere galarazi gabe ekitaldiaren eguna eta ordua eskabide-pilaketaren arabera ezartzea.

#### **11. artikulua.**

Ekitaldien seriotasunerako egokituta egonen da ekitaldia eginen den lokala. Halere, senideek edo lagunak lokala era berezian apaindu edo egokitu nahi badute, udal arduradunari garaiz jakinarazi beharko diote, bidezko dena ebaz dezan hark, betiere tokiaren harmonia eta ezaugarriak errespetatuz eta horren ondorioz sortzen diren gastuak haiek ordainduta.

Eskatzaileak eta bertaratutakoek bermatuko dute ekitaldia baimenaren xedeari egokitu zaiola, eta lokalaren barruan ezin izanen dute ezer egin lokalaren kaltetan.

#### **Xedapen gehigarria.**

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio udalekin batera finantzatzeko programak onets ditzan, udal lokalak sortze aldera.

#### **Xedapen iragankorra.**

Ukitutako udalek foru lege honetan aipatzen diren udal lokalak sortu eta egokitu beharko dituzte sei hilabeteko epean.

#### **Azken xedapena.**

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan toki entitateek hezkuntzaren arloan duten eginkizunari eta “Hiri Hezitzaileak” bezalako programei buruz.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan toki entitateek hezkuntzaren arloan duten eginkizunari eta “Hiri Hezitzaileak” bezalako programei buruz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Bizi dugun aro-aldaketa honetan, “Hezkuntza” letra larriz jarri behar dugu diskurtso politikoaren eta, bereziki, eztabaida sozialaren erdian. Familia, eskola eta lana izan ohi dira sozializazioaren hiru ardatz nagusiak, baina onartu beharra dugu beste aro batean bizi garela, era guztietako aldaketen aro batean: ekoizpenaren esparruan, familia-egitura eta -denboretan, ikasteko moduetan eta harremanak izateko moduetan.

Errealitate berri horretatik abiatuta, argi dago hezkuntzak erronka berriak hartu behar dituela bere gain. Eskolak ezin die berak bakarrik erantzun, eta ez die berak bakarrik erantzun behar, gizarte konplexu batean planteatzen diren hezkuntza premia horiei.

Eskolak, familiarekin batera, garrantzi handiko hezkuntza-eragile izaten jarraitzen du, baina lurraldeko gainontzeko hezkuntza- nahiz kultura-eragileekin batera hezurmamitu behar du bere jarduna.

Iragan maiatzaren 14an hiri hezitzaileak zer diren azaldu ziguten Toki Administrazioako Batzordean. Hiri hezitzaileen programari esker, herriak ez dira hezkuntza-jardunaren agertoki huts, hezkuntza-eragile bihurtzen baitira. Nafarroan, bi herri baino ez dira sartu hiri hezitzaileen sarean. Hori horrela izateko arrazoia izan daiteke toki entitateek proiektuaren berri ez izatea. Ezin da gure herrien etorkizuna ulertu kontuan hartu gabe hezkuntza –haren esanahirik zabalenean–. Gure udalek erantzunkidetasunez jardun behar dute, ikasgelatik haratago irakatsiz, eskola-ordutegitik haratago eta are derrigorrezko eskolatzetik haratago irakatsiz.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

**1.** Toki entitateek hezkuntzaren alorrean duten eginkizunari buruzko sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan.

**2.** Hiri hezitzaileei eta antzeko programei buruzko publizitate eta informazio kanpaina bat egin dezan, toki entitateei zuzendua.

**3.** Eskualdeko hezkuntza-planak susta ditzan.



4. Udal edo udalez gaindiko hezkuntza institutu-  
tuen sorrera susta dezan, egiten diren hezkuntza  
arloko ekintzak koordinatze aldera.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 20an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta  
eta Maiorga Ramírez Erro

---

**Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da indargabe  
dezan Nafarroako Errege Bardearen zati baten gainean Defentsa  
Ministerioak eginiko deklarazioa, defentsarako lehentasunezko intere-  
seko eremu izatearena.**

*LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker  
Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko  
mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez,  
Espainiako Gobernua premiatzen da indargabe  
dezan Nafarroako Errege Bardearen zati baten  
gainean Defentsa Ministerioak eginiko deklara-  
zioa, defentsarako lehentasunezko intereseko  
eremu izatearena.”

Legebiltzarreko Lehendakaritza, Justizia eta  
Barne Batzordeak, 2008ko maiatzaren 27an egin-  
dako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa  
baztertzea. Mozio hori 2008ko maiatzaren 16ko  
46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean  
argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak  
diren ekintzak abian jar ditzan Nafarroako Errege Bardearen baliabi-  
deen antolamenduari buruzko planaren betetzea eskatzeko.**

*LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker  
Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko  
mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez,  
Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezko-  
ak diren ekintzak abian jar ditzan Nafarroako Erre-  
ge Bardearen baliabideen antolamenduari buruz-  
ko planaren betetzea eskatzeko.”

Legebiltzarreko Lehendakaritza, Justizia eta  
Barne Batzordeak, 2008ko maiatzaren 27an egin-  
dako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa  
baztertzea. Mozio hori 2008ko maiatzaren 16ko  
46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean  
argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da azterlanak egin ditzan laborategi zibil gaitu eta independenteetan, baztertzeko Nafarroako Errege Bardeako natur parkearen barrenean dagoen tiro poligonoan uranio pobretua edo inguruan bizi diren herritarrentzat kaltegarriak diren bestelako elementuak erabiltzen direnik.**

*LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da azterlanak egin ditzan laborategi zibil gaitu eta independenteetan, baztertzeko Nafarroako Errege Bardeako natur parkearen barrenean dagoen tiro poligonoan uranio pobretua edo inguruan bizi diren herritarrentzat kaltegarriak diren bestelako elementuak erabiltzen direnik."

Legebiltzarreko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2008ko maiatzaren 27an egin-dako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2008ko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan herritarren borondatea, Bardeako tiro poligonoa desegitearen aldekoa, defendatzeko, hala adierazi baitzen Nafarroako Parlamentuaren 2008ko martxoaren 13ko erabakiaren bidez.**

*LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan herritarren borondatea, Bardeako tiro poligonoa desegitearen aldekoa, defendatzeko, hala adierazi baitzen Nafarroako Parlamentuaren 2008ko martxoaren 13ko erabakiaren bidez."

Legebiltzarreko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2008ko maiatzaren 27an egin-dako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2008ko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren, eskola liburutegien eta irakasleei laguntzeko zentroyen artean sinaturiko hitzarmenei buruzkoa.**

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren, eskola liburutegien eta irakasleei laguntzeko zentroyen artean sinaturiko hitzarmenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Iragan maiatzaren 8an, sozialisten parlamentu-taldeko kultura eta turismo arloetako eledunak galdera egin zion Gobernuari –Kultura eta Turismo kontseilariak eman zuen erantzuna–, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legearen betetze mailari buruz.

Kontseilariak, erantzunean, legea betetzat jo zuen neurri handi batean, baina erantzuna ez dator bat sareko profesionalen, sektoreari lotutako pertsonen eta galdera egin zion parlamentu-talderen ikuspuntuarekin.

Legearen IV. kapitulua unibertsitateetako liburutegiei, eskoletakoei eta beste ikastetxeetako liburutegiei eta liburutegi espezializatuari buruzkoa da. Eskola liburutegien garrantzi berezia eta liburutegi publikoekin duten zerikusia gogoan, jakin nahi dut ea zein den lege horretako 20.2 artikulua- ren betetze maila. Horrenbestez,

Galderaren testua

1. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren eta Foru Komunitateko eskola liburutegien eta irakasleei laguntzeko zentroyen arteko hitzarmenen zerrenda, eta hitzarmen horien erregelamendu bidezko garapena.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak jarduera planik ba ote duen, dirulaguntzen eta pizgarrien bidez eraikin eta etxebizitza zaharren eraginkortasun energetikoa sustatzeko.**

*M.<sup>a</sup> GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak jarduera planik ba ote duen, dirulaguntzen eta pizgarrien bidez eraikin eta etxebizitza zaharren eraginkortasun energetikoa sustatzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak ba al du jarduera planik, dirulaguntzen eta pizgarrien bidez eraikin eta etxebizitza zaharren efizientzia energetikoa sustatzeko?

- Egiaz baldin badu: jarri al du abian? Zein da plana aplikatzeko epea? Zer kontusailen kargura aplikatuko da?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

## **Galdera, helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako harrera-baliabideei buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako harrera-baliabideei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu departamentu eskudunak idatziz erantzun dezan.

Helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako harrera-baliabideei buruzko galdera.

- Zer baliabide publiko daude eskueran helduen laguntzarik ez duten haur etorkinei harrera egiteko?

- Mota horretako zenbat haur hartu beharra dago Espainian eta Nafarroan?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, jakiteko zergatik T bideetako teleordainketa eskusiboa ez dabilen gauez.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik T bideetako teleordainketa eskusiboa ez dabilen gauez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

T bideetako teleordainketa eskusiboa zergatik ez dabil gauez?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Vida Nueva elkartearen zentroko egoiliarrei, dirulaguntzei, ikuskapenei eta jarduera lizentziari buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Vida Nueva elkartearen zentroko egoiliarrei, dirulaguntzei, ikuskapenei eta jarduera lizentziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Vida Nueva buruzko galdera

- Zein dira aipatu elkartearen instalazioetako egoiliarrei, birgizarteratzea eta errehabilitazioa helburu, aplikatzen zaizkien sistema medikoa eta laguntza-sistema?

- Zer gizarte-beharrizanetan oinarrituta ematen zaizkio Ziritzako errehabilitazio-zentrorako dirulaguntzak elkarte horri?

- Zenbat ikuskapen egin ditu Gizarte Gaietarako Departamentuak zentro horretan?

- Zer jarduera-lizentzia du zentro horrek? Noiz eman zitzaion lizentzia?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzearen gaineko Foru Legeari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkezturiko galdera, Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzearen gaineko Foru Legeari

buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2008ko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Lan-taldea, ikastetxeak eraiki eta eraberritzerakoan zer alderdi hartu beharko liratekeen kontuan aztertzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Hezkuntza Batzordeak, 2008ko otsailaren 15ean, Erregelamenduko 55.2 artikuluan xedatua-rekin bat, lan-talde bat eratzea erabaki zuen aztertzeko zer alderdi hartu beharko liratekeen kontuan ikastetxeak eraiki eta eraberritzerakoan, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion xedatu behar-koa xeda zezala aipatu lan-taldearen osakerari eta funtzionamenduari buruz.

Lan-taldea eratu eta lanean has dadin, ondo-koa ERABAKI DA:

**1.** Epe bat ematea, 2008ko maiatzaren 30eko 10:00ak bitartekoa, parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu lan-taldeko ordezkaria izenda dezan, Hezkuntza Batzordeko kideen artetik, Legebiltzarreko Mahaiari idazki bat zuzenduta. Idazki horren bidez orobat izendatuko

da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari hura ordezkari dezan.

**2.** Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak erabakiko du lan-taldea zein egunetan eratu eta lanean hasiko den.

**3.** Azterlana egiteko epea 2008ko abenduaren 15ean bukatuko da.

Behin txostena prestatuta, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, eta hark Batzordeko kideei bidaliko die, txostena eztabaidatu eta bozkatuko den bilkuraren deialdiarekin batera.

**4.** Erabaki hau parlamentu-taldeetako eta foru parlamentarien elkarteetako eledunei helaraztea.

**5.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia.

### Izendapen proposamena

Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts (txanda irekiko bi eta goera txandako bat) oposizio bidez betetzeko deialdia bukatu da. Deialdia lehendakari honen 2007ko abuztuaren 10eko erabakiaz onetsi zen, eta 2007ko abuztuaren 31ko 108. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2007ko abuztuaren 31ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Epaimahai kalifikatzaileak, deialdiko 7.2 oinarrian ezarritakoari jarraituz, ondoko erabakiak jakinarazten ditu:

**Lehena.** Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts (txanda irekiko bi eta goera txandako bat) oposizio bidez betetzeko deialdia gainditu dutenen zerrenda onestea. Hona:

#### Txanda irekia-euskararik gabe:

- |   |             |
|---|-------------|
| 1.- Moreno Orduña, Karen.                   | 90,25 puntu |
| 2.- Aurrecoechea Gutiérrez,<br>Miguel Ángel | 71,50 puntu |

#### Txanda irekia-euskararekin

- |                               |             |
|-------------------------------|-------------|
| 1.- Rodríguez Jiménez, Ainara | 66,00 puntu |
|-------------------------------|-------------|

**Bigarrena.** Igoera txandako lanpostua hutsik gelditu denez, txanda irekikoei gehitu zaie.

**Hirugarrena.** Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari igortzea auditoriako teknikari izateko ondoko izangaien aldeko izendapen proposamena: Karen Moreno Orduña andrea eta Miguel Ángel Aurrecoechea Gutiérrez jauna –txanda irekian–, eta Ainara Rodríguez Jiménez andrea –txanda irekian, euskararekin–. Izangai hauek dira aipatu txandetan probak gainditu dituztenak.

Eta hau jakinarazten da, aipatu oinarriak xedatutakoarekin bat.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 20an

Epaimahaiko lehendakaria: Jesús Muruzabal Lerga jauna

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete .....	47,00 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko .....	1,25 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko .....	1,40 »